



11. oinezko ibilbidea Sara

11. SARA

ALTURA MIN.:	107 m.
ALTURA MAX.:	275 m.
DESNIBELA:	▼ 214 m. ▲ 65 m.
DISTANTZIA:	7,17 km.
DENBORA:	1 ordu 30 min.
ZAILTASUNA:	erraza



11. SARA

➤ UMARKIKO ZUBIA ~ ERGOIENA AUZOA



Aparkalekua	Zubia	Plaza	Karobizuloa	Uharka
Hasiera puntua	Jolaslekua	Barandiaran museoa	Baserria/Etxea	Amaiera

TOPOGIDA

P. Aparkalekua. Ibilbide hau zeharkaldia denez, bi aukera ditugu. Bata, Zubikoeta industrialdean uztea autoa eta buelta autobusez egitea. Eta bigarren aukera, Ergoienako plazan uztea autoa, eta hasiera puntura autobusez jaitea.

1. Hasiera-puntua. Umarkin hasiko da ibilbidea, Ataun eta Lazkao arteko herri-muga zein muga naturalean. Hemendik Ataun aldera abiatuko gara, eskuinean Otadizelai baserria utziz.

2. Zubia. Errepidea gurutzatu eta burdinazko zubitik igaroko gara erreka beste aldera. Zubi ondoan bertan dago Agauntzako ur-emari datuak hartzen dituen etxola. Eskuinean Urkuola baserria kokatzen da, esaunda usaina darion etxea. Herri bidea jarraituko dugu ezkerrean eginez. Barrenetxea baserriaren hondarrak igaro eta berehala gara Ajarrestako etxe artean.

3. Berrarain. Bidea aurrera jarraituko dugu Ajarrestako etxe artean, lamien esaunda usainean, txatartegi zaharra igaroz eta honen ondok aurrera eginez.

4. Bidarteko zubia. Zubia igaro eta errepidea gurutzatuz erreka ondok jarraituko dugu Errotakalen barneratuz. Kale honen amaieran eliza ikusiko dugu.

5. San Martingo plaza. Agauntza ibaia zeharkatuko dugu zubia igaroz eta otso arrastoak jarraituko ditugu jolasokia eskuin aldean utziz. Berehala, errepidea gurutzatu eta erreka ertz berean jarraituz zuhaitzen itzalean doan bidean jarraituko dugu.

6. Astigarragako atsedenekua. Nahi duenak atsedean hartuta aurrera jarraituko dugu bidea eginez.

7. Astigarragako zubia. Migel Imaz Apalategi kontratista entzutetsuak egindako zubi hau ezkerrean dugula aurrera jarraituko dugu, berehala berriro bide estu baina seinalezatuan sartuz, aurrerago buru gaintik belarra jaisteko kable-sistema igaroko zaigularik.

8. Olaluzeagako karobi-zuloa. Olaluzeaga etxetik eskuinean bidexkan igoz bertaratuko gara karobi-zulora. Hau ikusi ondoren bidea jarraituko dugu, errepidea gurutzatu eta berehala etxe barrenetik ezkerrean eginez aurrera ekiteko. Berehala gara berriro bidexkan.

9. Aldakotxo. Joxemiel Barandiaran amaren baserria ezkerrean utziz egingo dugu aurrera.

10. Peruenezar. Joxemielen jaiotetxea den baserria ikusi ondoren ezkerrean utzi eta bidea jarraituko dugu.

11. Sara. Hau ikusita etxe artean igaroz aurrera jarrai dezakegu. Bideetik, erreka egiten duen meandroaren barnealdean XVI. mendeko Zelaiabar dorretxea ikusiko dugu, zeina Lazkaoko jaunarena zen bere garaian, eta aurrerago multzo hidraulikoko elementu den Errotatxo ere igaroko dugu Larruntzara heldu aurretik.

12. Larruntza. Museoa ikusi ondoren, eta nahi duenak parean duen Olaldeko atsedeneku txikian deskantsu egin ondoren aurrera jarraituko dugu Lauztierrekako zubia ezkerrean utziz eta herri-bidea jarraituz. Honela, Ur-bide eta Olasagasti etxeak igarota sartuko gara berriro bidexkan.

13. Uharka. Atsedean hartzeko leku aproposa izateaz aparte, hemen hasten da errotaren funtzionamendua bermatzen zuten uren kanalizazioa. Atsedena ondoan herri-bidea aurrera jarraituko dugu.

14. Amaiera-puntua. Ergoienako auzune txiki honetan kokatzen da Ataungo sagardotegi bakarra, eta horregatik jende asko biltzen da bertara sagardo garaian. Ibilbidea amaituta atsedean hartzeko plazan badira eserlekuak eta baita haurrentzako jolasokia ere, iturri eta guzti.

GUNE INTERESGARRIAK



ASTIGARRAGAKO ATSEDENLEKUA

Gerizpean atsedean hartzeko leku aparta, bere eserleku, mahai, iturri eta guzti. Haurren jolasetarako jolasoki bat ere bada.

OLALUZEAGAKO KAROBIZULO

Bost mendetan zehar herrian landu den langintzaren aztarna da karobi-zulo hau, non hargintza, nekazaritza eta beste askotarako erabiltzen zen karea egiten zen.



SARA

Hemen bizi izan zen Joxemiel Barandiaran 1953. urtetik hasi eta 1991ko abenduaren 21ean hil zen arte. Hainbat bisitari izandako etxe hau Lapurdiko Saran bizi izandako etxearen antzirudikoa da eta atarian diren arte-lanak ikustekoak dira.



LARRUNTZA-JOXEMIEL BARANDIARAN MITOLOGIA MUSEOA

Joxemiel Barandiaran Mitologia museoa ondoan honen lana eta bizia, eta berak bildutako mitologiaren inguruko informazioa lantzen da modu erakargarrian.

